

GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)

2012-02-17ko OSOKO BILKURAKO AKTA

ARTIUM Museo-Zentroan egina
Frantzia kalea 24, Vitoria-Gasteiz

DEIALDIA EGITEN DUENA:

Lehendakaria: Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

LEHENDAKARITZA ETA IDAZKARITZA:

- Lehendakaria ez denez bertaratu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren **jarduneko lehendakaria** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuorde **Alfonso Gurpegui Ruiz** jauna izan da.
- Kontseiluaren lehendakariak izendatuta, **Angel M. Manero González jauna** Gizarte Gaietako Zuzendaritzako Gizarte Gaietako Arloko arduradunak **idazkari** titular gisa jardun du.

BILDUTAKO BOKALAK:

Iñaki Múgica Flores jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Miren Amilibia Urcelay andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Goi Ikuskaritzako zuzendaria (Lan Zuzendaritza).

Alberto García de Alcaraz jauna.- Arabako lurralde-ordezkaria (Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila).

Ignacio Rodríguez Puertas jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteriako zuzendaria.

Isabel Muela Lopez andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismoko zuzendaria.

Mariola Serrano Argüeso andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria.

Arantxa Elizondo Lopetegi andrea.- EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

Paloma Aranceta Arilla andrea.- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Sergio Murillo Corzo jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia.

Txelo Pérez Martínez andrea.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ezinduei Laguntzeko zuzendari nagusia.

Izaskun Uriagereka Legarreta andrea.- EUDEL (Mungiaiko alkatea).

Izaskun Landaida Larizgoitia andrea.- EUDEL (Ugao-Miraballeseko alkatea).

Dorleta Goiburu andrea.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte).

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna (EUSKO FEDERPEN).- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioaren ordezkaria.

Iñigo Iriarte Lejarraga jauna (FEVAS).- Ezintasun intelektualaren dutenen aldeko Elkartearen Euskal Federazioaren ordezkaria.

Aitor González Angulo jauna (ONCE Euskadi).- Zentzumen urritasunaren eremuan lan egiten duten EAEko erakundearen ordezkaria.

Juan Carlos Sola Guzman jauna (ELKARTEAN).- EAEko Desgaitu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen ordezkaria.

M. Jose Cano Mesías andrea (FEDEAFES).- Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkartearen Federakuntzaren ordezkaria.

Esther Navarro Castilla andrea (HIRUKIDE Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkartearen Federazioa).- Familia Batzorde Iraunkor Sektorialaren ordezkaria.

Karmele Acedo Gil andrea (Servicios Sociales Integrados S. Coop).- Euskadiko Lan Elkartearen Kooperatiben Konfederazioaren ordezkaria.

Consuelo Ordejón Caballero andrea (Gizarterako Elkartearen).- EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordearen ordezkaria.

Angel Sainz Palomar jauna (Agintzari Koop. E.).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Mayte Díaz de Lezana andrea (Harresiak Apurtuz).- Etorकिन Laguntzarako GKEen Koordinakundearen ordezkaria.

Inmaculada Mujika Flores andrea.- (Aldarte Elkartearen).- Gay, lesbiana eta transexualen erakundearen ordezkaria.

Miguel Angel Ruiz Díez jauna (Hiesaren aurkako Arabako Batzordea).- Droga-mendetasunen esparruko erakundearen ordezkaria.

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

Amaia López Iriondo andrea.- CONFEBASK (Euskal Entrepresarien Konfederakuntza).

Felisa Piedra Gao andrea.- CCOO Euskadi.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK

Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua (GZEKren lehendakaria).

Celina Pereda Riguera andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren Droga Gaietako zuzendaria.

Roberto Vidal Failde jauna.- Euskadiko Gizarte-hezitzaileen Elkargoa.

Bokal bat Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkari gisa.

BERTARATU EZ DIREN BOKALAK

Immigrazioaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko **bokal bat**.

Gizarteratzearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko **bokal bat**.

Hezkuntzaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko **bokal bat**.

Etxebizitzaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko **bokal bat**.

Giza eskubideen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko **bokal bat**.

Ekonomiaren eta Plangintza ekonomikoaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko **bokal bat**.

Bokal bat Eusko Legebiltzarreko ordezkari gisa (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).

Bokal bat EAEko Udalen (EUDEL) ordezkari gisa.

Hiru bokal enpresarien erakundeen (CONFEBASK) ordezkari gisa.

Bokal bat LAB sindikatuaren ordezkari gisa.

Bokal bat ELA sindikatuaren ordezkari gisa.

Bokal bat UGT sindikatuaren ordezkari gisa.

Bokal bat Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorraren ordezkari gisa (Euskadiko EAPN).

EUSKADIKO BESTE KONTSEILU BATZUETATIK BERTARATU DIRENAK (BOKAL EZ DIRENAK):

Pascual Borja Borja jauna (Gao Lacho Drom Elkarte).- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren ordezkaria.

KONTSEILUAK GONBIDATUTA BERTARATU DIREN BESTE BATZUK (BOKAL EZ DIRENAK):

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako psikologo-elkargoen ordezkaria.

Ibán Arrien Celaya jauna.- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren ordezkaria.

.....

JORRATUTAKO PUNTUAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian eta egunean. Bilkura 2012ko otsailaren 17ko goizeko 10:10ean hasi da, lehendakariak finkaturiko honako **gai-zerrenda** honi jarraiki:

1. Aurreko bileraren akta onartzea (2011-11-04).
2. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.
3. Zorroari buruzko Dekretua izapidetzen hastearen inguruko informazioa.
4. Telelaguntzaren Zerbitzu Publikoari buruzko 144/2011 Dekretuaren agindu baten aldaketari buruzko informazioa
5. 2012ko Goi Ikuskaritzako Jarduera Plana.
6. EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko Txostenaren aurkezpena (II. Txostena, 2011).
7. Gizarte Zerbitzuen sektoreko gizarte- eta lan-baldintzei buruzko azterlanaren aurrerapena.
8. Galde-eskeak.

.....

Jarduneko lehendakariak bertaratutakoak agurtu ondoren, gai-zerrendan aurreikusitako gaiak garatzen hasi da.

1. puntua.- Aurreko bileraren Akta onartzea: 2011ko azaroaren 4ko Osoko Bilkura.

Bidalitako behin-behineko txostenari oharririk egin ez zaionez, 2011ko azaroaren 4an egindako aurreko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

2. puntua.- Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.

• Gizarte Zerbitzuetako zuzendari Iñaki Múgica jaunak otsailaren 17ko (bileraren eguna) “Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea garatzea eta aplikatzea Eusko Jaurlaritzaren eskumenei dagokienez” deituriko dokumentuaren errepaso egin du. Dokumentu horretan honako gai hauei buruzko egoera biltzen da:

1. Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa
2. Gizarte Zerbitzuen mapa eta plan estrategikoa.
3. Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa
4. Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa
5. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazio Sistema
6. Gizarte Zerbitzuen Behatokia
7. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Itun Araubidea
8. Balioespeneko tresna tekniko komunak (Balora)
9. Esku-hartze sozialaren eremuan diru-laguntzen inguruko jarduera berrantolatzea
10. Koordinazio soziosanitarioa
11. Familia Bitartekotzako Zerbitzu Publikoa (Araba)
12. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa
13. 131/2008 Dekretua, uztailearen 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen
14. Nazioarteko Adopzioarako Erakunde Laguntzailearen homologazio-dekretua eta prozedurak
15. Gizarte-gastua
16. 2012rako aurreikusitako araudi-garapena

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** zehaztu du bileraren ondoren kide guztiei bidaliko zaiela dokumentu hori. Hori dela-eta, dokumentua akta honi gaineratu zaio **1. ERANSKIN** gisa. Hori esan ondoren, egon litezkeen galderak, iruzkinak eta antzekoak giteko txanda ireki du.

• **M^a José Canok** (FEDEAFES) “baterako ordainketari” buruz (Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa buruzko Dekretua) galdetu du horri dagokion testua bidaliko ote zaien.

• **Alfonso Gurpeguik** zehaztu du testua erakundeei bidali zitzaiela (aurreko taldeei irailean, beste dokumentu batzuekin batera, nahiz eta testu horretan falta ziren azterlan ekonomikoa euskarria, aplikatu beharreko ehunekoak eta abar), eta gaineratu du Zorroaren gaia baterako ordainketaren gaia baino dedikazio eta lehentasun handiagoarekin jorratu dela. Oraingo asmoa zera da, hasierako testuari heldzea, oinarritzko terminoak adostea eta horren ondoriozko testua al bait lasterren izapidetzeko bidean jartzea.

3. puntua.- Zorroari buruzko Dekretua izapidetzen hastearren inguruko informazioa.

• **Alfonso Gurpeguik** Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak aurreko puntuan Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaz azaldutakoari berriz heldu dio; izan ere, Dekretu hori

izapidetzen hastea onartu zen herenegun, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren bileran. Onarpen horren ondoren, Dekretuaren testuaren zirriborroa, otsailaren 15ekoa, GZEKren kide guztiei bidali zitzaien partekatzeko asmoarekin, lortutako adostasuna “gertaera garrantzitsutzat” hartu behar delako.

Hori lortu izanak poztasun handia ematen diola adierazi du; izan ere, horrelako testu zail eta korapilatsu batean eta EAeko Gizarte Zerbitzuen sistema bezalako sistema aberats eta korapilatsuan akordioa eta adostasuna lortzea benetan zaila da. Helburu hori lortzeko nahi baino denbora gehiago behar izan da baina emaitza testu bat izatea da; erakundeen % 100 ez dago ados testu horrekin baina gutxienez testua izapidetzeko gutxieneko baldintza batzuen inguruko adostasuna lortu da. *“Uste dugu horrek balio handia duela eta horregatik zuekin guztiekin partekatu nahi dugu”*. Hori dela-eta, erakunde eta ordezkari guztiek egindako lana eskertzen eta aintzat hartzen duela adierazi du.

Laster gutun ofizial bat igorriko da alegazioak egiteko epea ezarri; epea 2 hilabetekoa izatea aurreikusi da (Aste Santura arte) testuak aztertzea eta dedikazioa eskatzen duelako.

Erakunde arteko Organoaren bileran, Dekretua izapidetzen hastea onartzeaz gain, Sistemaren kostua (finantza-fluxuak) zehazteko helburuarekin Azterlan Ekonomikoko eta Finantzetako Talde bat sortzea erabaki zen. Bestalde, Mapa lantzeko irizpideak ezartzearen gaia ere jorratu zen.

Hitz egiteko txanda ireki da eta hainbat pertsonak parte hartu dute:

- **Txema Odrizolak** (Eusko Federpen) erakunde arteko mahai osoa eta hirugarren sektoreko erakunde batzuk bileran daudela aprobetxatuz, zorroaren gaiari buruz bere erakunde dagoen iritzia helarazi nahi izan du.

Ondoren, aurreko osoko bilkuran egindako galdera errepikatu du, hau da, Etxean Ondo programa, une honetan Gizarte Gaietako Sailaren punta-puntako programetako bat izanda, zergatik ez den sartu Ekintza Planean (100 proposamenen dokumentua) edo hobeto esanda, zergatik zegoen Ekintza Planetik kanpo.

Horri buruz adierazi du adinekoen erakundeek arreta-eredu berri bat nahi dutela eta bere kezka dela eredu hori bilduko ote den negoziatzen ari den zorroari buruzko dekretuan. *“Adinekoen zuzendutako arreta-plan integral bat eskatzen ari gara, hau da, erabakien autonomiaren printzipioa babesteko ahalegina egiten duena. Adinekoen % 95ek ez du egoitza batera joateko aukera aipatzea ere nahi. Adinekoen desio hori eskatzen ari garen eredu berrian irudikatu behar da.”*

Gure eredu: ingurunea, hiria eta etxea; eredu horrek eskatzen du zorroari buruzko dekretuan etxeko arreta garatua bilatu behar dugula, hainbat zerbitzuekin osatu beharko dena. Gainera, hainbat inguruabar direla-eta, beren etxeetan bizi ezin duten pertsonak daude eta horretarako Europan dagoen planteamenduaren antzeko planteamendua daukagu, hau da, zerbitzu anitzeko babespeko apartamentuak. Horretaz gain, hori guztia eguneko zentro gehiagorekin osatu behar da.”

Adierazitako guztiak eskatzen du gizarte-zerbitzuei buruzko legeak aldundientzat eta udalentsat ezartzen dituen eskumenak aldatzea; izan ere, etxeko laguntzaren gaia udalen eskumena da eta egoitzaren gaia, aldundiena. Egoitzei buruz zorrotz dio *“ez dugula ohiko egoitza gehiagorik nahi”* eta gogorarazi du *Danimarkan orain dauzkagun egoitzak egitea 1987. urtetik debekatuta dagoela. “Eredu berri hau banatzeko eta finantzatzeko modua aurkitzeko udalen eta aldundien arteko akordio bat lortu beharko litzateke”. Ulertzen dut eredu berri horretan Osasun Sailak ere sartu behar duela, etxeko osasun-arreta, kronikoen tratamendua eta abar eskainiz”*.

GZEKri eskatzen dio *“esaten ari garenaren inguruan iritzia emateko, zorro berri honetan eredu berria jasotzen ez bada zapuztuta geratuko garelako. Horrelako aukera behin izaten da eta guk eredu hori nahi dugu; izan ere, eredu hori da gure elkarteko 130.000 kideei (gutxi gorabehera)*

proposatzen eta azaltzen ari garena". Hortaz, eskatzen du proposamen hau eta zorroari buruzko dekretuari egingo dizkioten alegazioak *"begi onez hartzea"*; izan ere, alderdi instituzionaleko negoziazioa itxi ondoren, hirugarren sektoreko eskaerei erantzun behar zaie eta sektore horretan adinekoen erakundeek ahotsa eta iritzia dute.

- **Juan Carlos Solak (ELKARTEAN)** galdetu du zerbait proposatzen denean, esaterako Etxean Ondo programari buruzko proposamenaren kasuan, "zerbaitetarako balio ote duen ala ez", Sailak gaia birplanteatzen ote duen edo berrikusteko balio izaten ote duen jakin nahi dutela ...

Desgaitasunari orokorrean eta desgaitasun fisikoari zehatzago loturiko erakundeek dituzten helburuak nabarmendu ditu, bizitza independentearen ereduaren aldeko apustu argi eta zehatza delako. Alderdi hori oso modu anbiguoan jasota dago (zorroari buruzko dekretuan) eta ez bairik gabe, ez dago paradigma gisa jasota.

Gainera, elkarrizketa zibilerako mahaiaren azken bileran egin zuen galdera errepikatu du: ongizate-estatuaren osasun-egoera nolakoa den jakin nahi du. Nolako arriskuen eraginpean dagoen eta ikuspegi instituzional batetik murrizketarik izango ote den. Gai hori alderdi instituzionaletik berrikusiko den finantzaketaren gaiarekin lotu du...*"Kontseilu honetan gai horren berri eman behar da, horren informazioa gizartean badagoelako eta hemen aipatzen ez dugulako"*.

- **Miguel Angel Ruizek**, droga-mendetasunen eremuko erakundeen ordezkariak, uste du berri ona dela zorroari buruzko dekretuaren izapidetzea hastea onartu izana baina hirugarren sektoreko erakunde askori –batez ere bazterketako egoeretan edo drogen mende dauden pertonekin lan egiten dugunoi– *"gustatuko litzaiguke zorro hori zehaztuagoa ikustea, oraindik ez dakigulako non kokatuko diren guretzat oinarrizkoak diren hainbat zerbitzu, kasu batzuetan 20 urte baino gehiagotan martxan egon direnak"*. Eguneko arretarako zerbitzuak edo gaueko harrera-zentroak...udal-arlokoak edo aldundi-arlokoak izango ote diren... *"nolabaiteko nahasketa daukagu egungo baliabide askoren kokapenaren inguruan eta egia esan, kokapen zehatzagoak ikusi nahi genituzke, izen-abizenekin"*.

Zorroan kokatzeko zailtasun horren adibide gisa presoen arretarako programak aipatu ditu, kasu batzuetan, 20 urte baino gehiagotan martxan egon direnak (batez ere Araban, bertan kokatuta dagoelako konplimentu-kartzela). *"Horiek ere guretzat gizarte-zerbitzuak dira, guretzat presoen gizarteratzea gizarte-zerbitzuei dagokien gaia delako eta ez hainbeste justiziaren arloari; izan ere, zerbitzu horietan lanean ari direnak gizarte-langileak eta gizarte-hezitzaileak izaten dira eta gure funtzionamendua gizarte-zerbitzuen funtzionamenduaren berdina da"*.

Gainera, adierazi du zailtasunak dituzten pertsonen arretara zuzendutako zenbait programa ez direla gune fisikoetan kokatzen, esaterako prostituzioan aritzen diren pertsonen arretarako programak edo kalean bizi diren pertsonen arretarako programak; izan ere, *"ez dira inongo gizarte-zerbitzuetan fisikoki kokatzen eta gustatuko litzaiguke dekretuan argiago jasoak eta definituak ikustea"*.

- Aurreko ekarpenen inguruan **Alfonso Gurpeguik** argitu du Zorroak Legearen 22. artikuluan jasotzen den Katalogoa garatzen duela. "Zorroan ezin dira bestelako baliabideak asmatu, Legean jasotzen dena garatzen da". Garapen hori ahalik eta onena izateko, bertaratutakoei dekretuaren testua lantzeko gonbidapena egin die, ahal dena hobetzeko edota balizko gabeziak identifikatzeko eta alegazioetarako aldiari Sailari jakinarazteko. *"Zorroak eskubide subjektiboko baliabideak ezartzen ditu, hau da, ez dago eragozpenik gizarte-zerbitzuetako sistema eskubide subjektibo gisa adierazten denetik aparte garatzeko, orain garatzen den moduan"*. Horrela, fitxak garatzeko fasean orain dauden zerbitzuak bistaratu nahi izan dira, ondo kokatzen diren edo ez ikusteko; onartu du batzuetan horretarako zailtasunak sortu direla baina nolahi ere, Katalogoan baldin badaude kokatu egin beharko dira.

Aurrekoaren ildo beretik, Miguel Angeli erantzun dio eguneko arretarako zerbitzuak eta gaueko harrera-zerbitzuak jasota daudela baita kaleko hezkuntzako zerbitzuak eta gizarte- eta

hezkuntza-arloko zerbitzuak ere, *“nahiz eta ziurrenik gaur egun martxan dauden baina jasota ez dauden zerbitzuak izango diren, katalogoak finkatzen eta mugatzen du jarduna”*.

Txemari eta Juan Carlosi erantzunez, nabarmendu du legeak esku-hartze komunitarioa eta etxea ezartzen dituela lehen aukera gisa. Orain egin behar dena da hori gauzatzea. Horixe biltzen eta garatzen du dekretuak *“arreta komunitarioa eta erabiltzaileen lehentasunetikiko errespetua, etxearekiko lehentasuna eta abar jasotzen baititu”*. *Ikusi behar dena da legeak ezartzen duena dekretuan ondo jasotzen ote den”*.

Txemak eta Juan Carlosek adinekoen arretaren eta desgaituen bizitza independentearen inguruan egindako ekarpenak positiboki balioetsi ditu; bestalde, adierazi du badagoela bizitza independentearen programa garatzen duen fitxa bat eta aurten *“desgaitasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako baliabideen araudi-garapenean sakondu nahi dugu eta horien artean dago bizitza independentearen baliabidea ere”*.

Ongizate-estatuaren osasunari dagokionez, onartu du berak duen informazioa bertaratutako guztiek duten informazio bera dela, betiere denek onartutako krisi ekonomikoko egoeraren esparruan. Sailburuaren hitzak errepikatuz dio Jaurlaritzaren iritzia dela egoera ekonomikoak baldintzatu dezakeela baina ez duela legearen garapenerako aitzakia izan behar. Hori dela-eta, Erakunde arteko Organoan eskatu zen kostu ekonomikoa aztertzeko Talde bat sortzea eta horrela egin da. Helburua da erakunde bakoitzak ordezkaritza bat izendatzea eta horrela aste batean inguruko epean Batzordea eratzea talde tekniko baten laguntzarekin.

Bestalde, kostu ekonomikoa aukera politikoaren mende egongo dela adierazi du, politikoki ezartzen den arreta-mailaren arabera. Arazoa finantzaketa izango da, hau da, *“nola lortuko dugu adostasuna gai hau, eta hedaduraz, politika publiko guztiak iraunkorak izateko”*. Eztabaiden emaitzak eta hartzen diren erabakiak helarazteko aukera ematen du baita hirugarren sektoretik aipatutako Batzorde horretara helarazten diren ekarpenak onartzeko ere. Nolanahi ere, arlo publikoaren iraunkortasunari buruzko eztabaidak organo honen eskumenak gainditzeko eta gainerako eremuetara zabaltzeko beharko litzateke gizarte-zerbitzuen eremura soilik mugatu gabe.

- **Juan Carlos Solak** argitu du bere aurreko ekarpena ez zegokiola zorroan biltzen diren gizarte-zerbitzuei eta aldiz, adierazi nahi zuela, krisiaren ondorioz gizarte-estalduraren eskaera ehun aldiz handiagoa denean eta aurrekontu berberei eusten zaienean, ongizate-estatua arriskuan jartzen dela. Hor gerta daitezke murrizketak.

- **Txema Odriozolak** adierazi du etxeko arretarako zerbitzuaz, eguneko zentroeiz, babespeko apartamentueiz... hitz egin duela eta horiek guztiak legearen katalogoan jasotzen direla. *“Badakigu legeak nolako izaera duen, legea lantzen parte hartu genuelako eta ingurunearen testuingurua sartzen ahalegindu ginelako”*. Eskertu du legeak hori jasotzea baina fitxei buruzko kezka adierazi du; izan ere *“paperaren gainean edozer idatz daiteke”*. Esan duenez, hirugarren sektore gisa lagundu dute fitxak idazten, baina *“fitxa izenburu bat besterik ez da, ondoren zehaztu eta garatu behar dena”*.

Aurretik aipatutako argumentua nabarmendu du: *“hemen alderdi instituzionalekoak zaudete, hirugarren sektorekoei entzuten gaituzue eta nik nahi nuke eredu berriaren arabera aldundien eta udalen arteko akordio bat integratzeko borondatea izatea. Hori ez bada garatzen, eredu atzeratu batekin jarraituko dugu. Nik badakit hori egiteak eskumenak banatzea eskatzen duela. Aldundientzat onuragarria izango da, egoitza gutxiagorekin gastua txikiagoa izango delako baina eredu berria denez, udalei lagundu egin behar diezue”*. Gai korapilatsua da baina aukera ezin hobea, eta arrazoi horrexegatik eskatzen du aldundien eta udalen iritzia, alde zuzeneko eskertuta.

- **Paloma Arancetak**, Arabako Foru Aldundiko ordezkariak, etxeko laguntzari buruz gogorarazi du zorroaren kostu ekonomikoaren gairako espresuki lan-talde bat sortuko den ildo berean, etxeko laguntzaren gaia monografikoki aztertzeke ere lan-talde bat sortuko dela.

Txemak egindako galderari erantzun dio zera esanez, hirugarren sektoretik iristen zaizkien ideiak onartuko dituztela. Gainera, Etxean Ondo programaren ildo esperimentalari dagokionez, aurten esperientzia edo proiektu hori Arabako hainbat eremutan garatuko da.

- **Sergio Murillok**, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak, aurkeztutako planteamendu batzuei erantzun nahi die. Ongizate-estatuaren gaiari buruz eta zorroari dagokionez *“komeni da honako hau esatea: erakunde-ikuspegitik denok ekin diogu eztabaidari ereduaren aurrerapenaren ikuspuntutik; ez dugu uste inongo zerbitzutan (batez ere zorroan biltzen direnetan) izango denik gaur egun dagoen eskaera eta estaldura baino eskaera eta estaldura gutxiagorik”*. Finantza-eraketaren ikuspuntutik, uste du balorazio horrekin bat datozela erakunde guztiak eta balorazio hori izandako bilera eta eztabaida guztien espirituan egon dela.

Erakunde arteko Organoan asteazkenean adostutakoa garrantzitsua dela onartu du baina aldi berean, horri garrantzia kendu nahi dio zorroa itxita ez dagoela gogoraraziz; izan ere, gaur hasten da zorroa lantzeko prozesuaren beste fase bat. Gainera *“gizarte-zerbitzuak bazeuden zorroaren esparrua sortu aurretik eta ondoren ere hor izango dira. Gainera, zorroan bilduko ez diren gizarte-zerbitzuak egongo dira eta horiei ere eutsi egingo zaie”*. Konpromiso irmotzat hartzen du Foru Aldundiko eskumeneko gizarte-zerbitzuak egotea (Bizkaian gutxienez) zorroan bildutakoez gain.

Hirugarren sektorearen iritzia kontuan izateari dagokionez, gogorarazi du hirugarren sektorea kontuan hartu dela zorroa garatu aurretik, garatzen zen bitartean eta garatu ondoren, beraz, berriz ere bere iritzia aintzat hartuko dela *“ibilbide horri jarraitu behar zaiolako, denen artean eraikitzea eta erantzutea”*.

Txema Odriozolari erantzunez adierazi du Bizkaiko Foru Aldundiak ez diola uko egingo zerbitzuak kudeatzeko orain arte izan duen autonomiari, erakundetik bertatik eta hirugarren sektorearekin lankidetzan zerbitzuak kudeatuz. Zorroa edukitzailea edo esparrua da, zerbitzuak izan behar duen gutxieneko izendatzaile komun bat baina *“kudeaketa-ereduaren eta babespeko apartamentuen gaien inguruan lanean jarraitu behar dugu”*. Adinekoentzat nolako egoitzabaliabideen eredia egin behar den aztertu behar da; Bizkaiak ez dio gai horren kudeaketari uko egingo lege bat eta zorroari buruzko dekretu bat sortu direlako.

Orain daukagun gizarte-errealitatea kontuan hartuta, legean jasotzen diren egoerez gain bestelako egoerak ere badaude. Zorroaren garrantzia erlatibizatu du (*“dena ez da zorroan jaso behar”*): zorroak ez digu dena konponduko eta zenbait gauza lantzen, horiei buruz hitz egiten eta partekatutako diagnostikoak eta abar egiten jarraitu beharko da, Bizkaiko aterperik gabekoen gailan esaterako.

- **Txelo Pérezek**, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, argitu du *Etxean Ondo* Programa programa pilotua dela, ez dela aurretik ezarritako ezer eta ez dela Zorroari buruzko Dekretuan edo beste esparru batean jasotzen. Proiektu hori martxan dago eta aurrerago frogatu eta aztertu egin beharko da bideragarria den edo ez ikusteko edota artatutako pertsonen ekartzen dizkien onurak bideragarriak diren edo ez jakiteko.

Bestalde, argi utzi nahi izan du etxeko laguntzaren gaiari buruzko monografiko bat egiteko arrazoietakoa bat Gipuzkoako Foru Aldundiak duen ikuspegia eta egiten duen apustua izan dela; izan ere, norberaren ingurunean geratzearen eta autonomia pertsonala garatzearen aldeko ahalegina egin behar dela ulertu da. Ikuspegi horrekin lan egin da izan diren bileretan (9an, 15ean...) orain zirkulazioan jartzen den zorroari buruzko dekretuaren dokumentura iritsi ahal izateko. Alde guztiak dokumentu honi buruzko eztabaidan aritu direla adierazi du baita dokumentuaren *“alderdi gehiago aldatuko lituzketela ere. Logikoa denez, Gipuzkoak bere alegazioak egingo ditu eta berdin egingo da Arabatik, Bizkaitik eta EUDELetik.”*

Gogorarazi nahi izan du Gipuzkoak Bizitza Independenterako Programa bat daukala, autonomia pertsonalaren aldeko prestazio ekonomikoarekin (Estatuan horrelako 1500 programatik gora daudela eta horietako 1000 programatik gora Gipuzkoari dagozkiola) eta amaitzeko esan du Gipuzkoak pertsonak ahal den guztietan beren ingurunean geratzearen eta hori sustatzearen aldeko aukera egiten duela.

Ikuspegi horretatik balioetsiko dute egoitza-zentro gehiago eraiki behar diren edo ez, edo beste eredu bati jarraitu behar dioten, esaterako Danimarkakoari edo Suediakoari, hau da, hasiera batetik bizitzaren amaierara arte apartamentuen alde egitea eta eskumen desberdinen arabera hori nola gauza daitekeen aztertzea. Une honetan, legeak ezartzen du alderdi batzuk udalek artatu behar dituztela eta beste batzuk aldundiek, *“gainera, egindako bileretan akordio bat lortu dugu (ez “kudeatzeko gomendioaren” bitartez zehazki, baizik eta dirutan ordainduz) zerbitzu batzuk aldundiek eta beste batzuk udalek estali behar dituztela ikusi dugulako; horren adibide da desgaituei (gaixotasun mentala dutenak barne hartuta) zuzendutako etxebizitzaren gaia; izan ere, arlo hori udal-eskumenekoa zen baina 3 lurraldeetako errealitatea nolakoa den ikusita uste dugu aldundiek jarraituko dutela zerbitzu hori eskaintzen”*.

- **Izaskun Landaidak**, EUDELeko ordezkariak, adierazi du denek argi eduki behar dutela elkarren artean zerikusi askorik (tamaina, egitura eta abarrei dagokienez) ez duten udalen ordezkariak direla; alderdi hori aurrerapen modura planteatzen den zorroari buruzko dekretuarekin lotuz onartu du *“argi dagoela udalek orain arte eskaintzen zituzten zerbitzuak baino zerbitzu gehiago eskaini beharko dituztela”*.

Etxeko laguntzari dagokionez, bat dator aldundien ikuspegiarekin, hau da, gai horri espresuki ekin behar zaiola udalek eskaini behar duten zerbitzua delako; Txemak aipatutako gakoa aintzat hartuta, argi dagoela jendeak bere etxean egon nahi duela ahalik eta denbora gehien. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko erakundeei (jaso berria dute zorroaren dokumentuaren zirriborroa eta ezin izango zuten oraindik azertu) gogorarazi die hemen planteatutako gaiak katalogoan jasota daudela eta Zorroan garatzen direla.

- **Paloma Arancetak** zehaztasun bat egin nahi izan du; izan ere, etxeko laguntza-zerbitzuan oinarritutako monografikoa eta pertsonengan oinarritutako arreta lantzeaz gain, Osasun arloarekin hertsiki lantzen ari gara gune soziosanitarioen gaia, arlo horrek ere dena pertsonarenganako arretan oinarritu baitu; *“nahiz eta gauza bat zorroaren esparruan sartzen den eta bestea esparru soziosanitarioan, azken batean bi jardunen artean lotura dago”*. Batzordeetan ere lan egiten ari da, aurreko astetik martxan daudelako.

- **Txema Odriozolak** Txelo Perezi eskertu dio Etxean Ondo programari buruz emandako erantzuna eta adierazi du berak ere programa hori programa pilotutzat hartzen duela baina *“berringeniaritzako proiektu bat da, teknika asmatuta dago, funtzionatzen ari da eta guk aplikagarritasun-proiektu bat egin behar dugu”*.

Argi utzi du aurrera jotzeko borondatea izatea nahi duela, *“izan ere, gaur gizarte-zerbitzuei buruzko txostena aztertzen dugunean ikusiko dugu adinekoen atalean soilik egoitzez hitz egiten dela eta adinekoen gaia ez da horretara mugatzen. Funtsezko alderdia da beste eredu baterantz abiatzea, hain zuzen merkeagoa, gizatiarragoa eta batez ere sozialagoa izan daitekeen eredurantz. Borondaterik badagoen argi uztea nahi nuke. Eredu berrira irekiak egotea eskatzen dizuet”*.

- **Txelo Pérezek** adierazi du guztiz ados dagoela Txemak esandakoarekin eta uste duela norberaren ingurunean eta etxean jarraitzeak ez duela esan nahi garestiagoa edo merkeagoa izango denik. *“Gai ekonomikoa eta administrazio desberdinen finantza-askitasuna aztertzeke Batzorde bat sortzearen arrazoia aipatutako horretan oinarritzen da, hau da, administrazio bakoitzak bete behar dituen eskumenak garatu ahal izateko”*. Kontuan hartu behar da gizarte-zerbitzuen egungo banaketa, izan duten garapenari begiratuta, ez datorrela bat helburu horretarako egin zen ekarpenen legearekin. Hortaz, udalek ez dute nahiko baliabide ezarritako eskumen berriak betetzeko. *“Eta aldundiei ere baliabideak falta zaizkigu gure zorroan sartu den”*.

guztiari aurre egiteko eta aurretik zegoen guztia garatzeko eta, beraz, hori berrikusi egin behar da. Udalek eta aldundiek gaur egun daukaguna baino gehiago estaltzeko gaitasun ekonomikorik ez badute, aparteko dekretu bat idatz dezakegu baina dekretu hori teoriarik geratuko da”.

- **Juan Carlos Solak** aurreko Osoko Bilkuran egindako galdera errepikatu du: *Etxean Ondo* programa zergatik egin ote den lurralde bakar batean beti bistakoa izan bada lurraldeen arteko desberdintasuna berez handia dela. Horrela, zaila da zorro osoarentzat eta EAE osoarentzat erreferentzia bakar bat hartzea, dauden desberdintasunak errepikatzen ari bagara. Proiektua lurralde guztietara ez zabaltzeko arrazoia argitzeko azalpen bat eman zuen.

Aurreko galdera GZEKren funtzionalitatearekin erlazionatu du; izan ere aurretik hitza hartu duenean jarduneko lehendakariari galdetu dio egindako eskaeraren aurrean gutxienez erantzuten den, erabakirik hartu den edo Kontseilu honek jarreraren bat hartu duen... hau da, Kontseiluaren funtzionalitatea zehaztu nahi du. Kontseilua norbaitek azaltzen duena entzuteko (*“entzuna sukaldean”*) soilik ote dagoen; izan ere, *“uste dut egiten diren ekarpenekin Kontseilua gehiago aberastu daitekeela eta une jakin batean ekarpenak gauzatzen diren ekintza zehaztuz jaso*. Zer iritzi dago egindako proposamen baten aurrean, esaterako *Etxean Ondo* proiektua hiru lurraldeetara zabaltzeko proposamenaren aurrean? Entzun du errealitate bereziak dituzten udalak aukeratu direla baina aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariari entzun dio lurralde bakoitzaren desberdintasunari eusten ziola. *“Ezinezkoa da Jaurlaritzaren ekintza bat lurralde batean soilik garatzea planteatzea hiru lurraldeetan gara daitekeen ekimena denean eta ez denean lurralde bakoitzetik datorren ekimena. Jaurlaritzak horren aldeko ekimena hartu badu, gutxienez erantzun behar zenigukete”*.

- **Alfonso Gurpeguik** *Etxean Ondo* proiektuari dagokionez Juan Carlos Solari erantzun dio orain arte garatu denaren memoria bidaliko zaiela. Berriz ere esan du *Etxean Ondo proiektua*, Txelok azaldu duen moduan, proiektu esperimentalak dela hain zuzen ere Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezarritako eskumenen arabera Jaurlaritzak eskumenik ez duelako. Lege horrek Jaurlaritzari soilik ekintza zuzeneko 5 zerbitzuren plangintzari, araudiari eta kudeaketari dagozkion eskumenak esleitzen dizkio. *“Baita esperimentazioari dagokiona ere, legeak eskumenen 3 mailetan onartzen baitu”*. Esparru horretan kokatzen da 2011n hasitako proiektu pilotu hau, Gipuzkoako 5 udalen eskutik eta Gipuzkoako Aldundiarekin (aurreko taldearekin) egin dena. Jaurlaritzak ezin duelako bakarrik lan egin administrazio askotan ahokadura asko egitea eskatzen duen proiektu batean.

Hori dela eta, aurreko osoko bilkuran adierazi zuen moduan, esperientzia pilotu hau lurralde bakar batean egin da 2011n, erosotasunagatik edo metodologia-soiltasunagatik, egikaritzapena errazteagatik, solaskide kopurua biltzeagatik eta abarregatik. Aurten lurralderen batek eskatu dio Jaurlaritzari esperientzia hori lurralde horretara zabaltzeko.

Gure aukera eskasen neurrian, kontuan hartuz arretako eredu berrien edo jadanik dauden ereduen inguruan esperimentatzea (eredua nola errentagarri egin, optimizatu eta abar jakiteko) funtsezko gaia dela eta betiere pertsona bere ingurunean mantentzeko arauari jarraiki, Arabako Aldundiarekin harremanetan hasi gara 2012. urte honetan *Etxean Ondo* proiektuaren antzeko esperientziaren bat erakunde horrekin zehaztu beharko den eremu edo lurralderen batean martxan jartzeko.

Bizkaiko Aldundiarekin ere horri buruz hitz egin da baina han esperientzia pilotu hori egiteko prest dauden edo ez erantzuteko zain gaude. Izan ere, aurretik esan den moduan, arlo esperimentalean hiru administrazio-mailek dute eskumena eta kasu honetan, Bizkaiak ere egin ditzake bere esperimentazio-proiektuak. Hori dela-eta hasi zen proiektua iaz Gipuzkoan, aurten jarraituko da Araban eta beharbada Bizkaian, hango Aldundiaren jarreraren arabera.

Azpimarratu du Jaurlaritzak proiektu esperimental horiek gauzatzeko eskumena duten erakundeen eskutik joan behar duela. Adierazi duenez, esperientziaren ondorioak eta azterlanen memoria partzialak GZEKrekin partekatuzko konpromisoa hartzen du eta gaineratu

du esperientziatik orain arte ateratako ondorioen berri emateko maiatzaren inguruan jardunaldi bat antolatzea pentsatzen ari direla.

Aurretik aipatutakoa zorroaren gaiarekin lotuz adierazi du prest dagoela Kontseiluko langileekin saio monografiko bat izateko eta saio horrekin bat egitera gonbidatzen ditu gainerako erakundeak zorroaren gaia (lantze-prozesua, zenbait fitxen inguruan erabakiak hartzea eta abar; azken batean, egungo testura iristeko prozesua) argitzeko helburuarekin; izan ere azken 3 urteetan mugarri horren inguruan aritu gara lanean. Egia da gizarte-zerbitzuak legea edo zorroa sortu aurretik bazeudela...baina egia da ere legeak eta zorroak eskubide subjektibo bat onartzen dutela, eta, beraz, oso garrantzitsutzat jotzen du eskubide hori zorroaren dekretuan gauzatzea edo zehaztea lortu izana.

Aipatutako saioa Jaurlaritzak antolatzea (ahal bada goiz oso bat) erabaki da, ahalik eta epe laburrenean (gutxi gorabehera 2 aste), GZEKren langileek nahiko denbora izan dezaten bilera aurretik testua irakurtzeko.

4. puntua.- Telelaguntzaren Zerbitzu Publikoari buruzko 144/2011 Dekretuaren aqindu baten aldaketari buruzko informazioa.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** zehaztu du “ez dela informazioa ematea baizik eta nahitaezko txostena igortzea”. GZEKren nahitaezko txostenak igortzeko orain arte eraman den dinamika gogorarazi du, hau da, puntu horri dagokion aktaren zatia jasotzea, betiere bokalen batek bozkatzea proposatzen ez badu eta kasu horretan, bozketa egingo litzateke.
- **Iñaki Múgicak** adierazi du aldaketa egiteko unea OSATEKek (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak Telelaguntzako Zerbitzua esleitu dio) zerbitzu hori esleitzeko idatzi beharreko plegu berriaren aldiari kokatzen dela.

Egin nahi den aldaketaren inguruan aditzera eman du kontuan hartu dela beste erkidegotan nola lan egiten den eta nola araututa dagoen telelaguntzaren arloa. *“Kontuan hartuta alde batetik, erabiltzen diren aparatuen iraunaldia edo bizitza erabilgarria, eta bestetik, jasotako ekipamendu mota (aparatu askok une hauetan ez dute betetzen erabiltzaileek beren etxeetan dituzten ekipo teknikoaren araudia), pentsatu dugu egoera hori azkarrago konpontzeko mesedegarria eta interesgarria izango zela artikulu bakar bat aldatzea, 21. artikulua”* (Ekipoen jabetza).

Artikulu horrek dio *“ekipoak Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak izango direla”*. Testu berriaren arabera, ekipoak zerbitzua ematen duen enpresaren jabetzakoak izango dira:

“21. artikulua- Ekipoen edukitze-erregimena
Telelaguntzako zerbitzu publikoaren erabiltzaileek 2 ekipo izango dituzte erabilera-lagapeneko erregimenean. Zerbitzuarekiko baja gertatzen denean, ekipoa zerbitzua ematen duen enpresara itzuli beharko da”.

Nabarmendu du formula horrekin bizkortasunean irabaztea bilatzen dela baita ekipo modernoagoak eta eguneratuagoak izatea ere, eta aldi berean, ekipo horiekin lan egin behar duen enpresa esleipendunari erantzukizun gehiago eskatu dio.

Orain dela bi egun Erakunde arteko Organoak bere txostena igorri zuen eta orain era berean GZEKri dagokio bere eginkizunak betez nahitaezko txostena igortzea. Txosten hori dekretu aldatzeko espedienteari gaineratuko zaio, bere izapidetzearekin jarraitzeko onartzen den arte. Era berean, OSATEKek aldatutako dekretu honen araberrako Telelaguntzako Zerbitzuaren lehiaketa-lizitazioaren plegu berria egin beharko du.

- **Jarduneko lehendakariak**, txanda gehiago ez dagoenez, telelaguntzako zerbitzu publikoaren 144/2011 Dekretuaren aldaketari buruzko GZEKren nahitaezko txostena emandakotzat jo du.

5. puntua.- 2012ko Goi Ikuskaritzako Jarduera Plana.

- **Alfonso Gurpeguik** zuzendariak Plana aurkeztu aurretik jakinarazi du GZEK-ko kideei 2012. urteari dagokion Plana bidali zaiela. Dokumentu hori bera aurkeztu zen otsailaren 15ean Erakunde arteko Organoan eta bertan, Ainhoa Domaicak, EUDELen iritzia azalduz eta berak eskatuta, proposatu zen Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko ikerketa (3. Jardunean bildutakoa, "Ikerketak" izenburuko 3. idatz-zatian) ez egitea Goi Ikuskaritzak. Denak bat zetozen azterlan hori egiteko premian baina ikusten zen azterlana Goi Ikuskaritzak eginda eskumenen bat behar bezala ez zela egikaritzen auresuposa zitekeela.

Gizarte Gaietako sailburuordearen hitzetan, "*sentsibilitate arazoa da, ulertzen da eta errespetatzen da eta, beraz, ikerketa hori ez da Goi Ikuskaritzatik egingo, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzatik baizik*".

- **Miren Amilibiak**, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzako zuzendariak, zehaztu du Plan horren jatorria iaz egindako ikerketetan kokatzen dela, batez ere honako honetan: *Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen errealitatearen ikerketa, analisi estruktural eta funtzional baten bitartez, indarrean dagoen araudiaren egokitzapena kontuan izanda.*

Azterlan horren datuen arabera eta Arartekoaren ezohiko txosten bati ("*EAEen norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa*") jarraiki landu da dagokigun lan-plana, honako 3 ildo nagusi hauekin:

- **Gomendioak:** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren homogeneizatorako eta harmonizatorako araudia garatzea.
- Sistemaren elementu nagusiak **analizatzea, ikertzea eta aztertzea**, elementu horien homogeneotasuna, kalitatea eta egokitzapena egiaztatuz.
- Euskal administrazioek indarrean dagoen araudia **betetzen dela zaintzea**, indarreko legediak eragileen esku jarritako tresna komun erabilerari arreta berezia eskainiz.

Goi Ikuskaritzako zuzendariak martxan dagoen beste ikerketa bat aipatu du; ikerketa hori laster jasoko da, hori ere SIIS zentroari eskatutakoa da eta gaia honako hau da: "*Gizarte Zerbitzuen arloko kalitate-adierazlearen aginte-koadroak*". Azterlan horiek, ematen dituzten emaitzen arabera, egungo egoera balioestea eta ondorioz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ahalik eta homogeneizazio eta harmonizazio handiena sustatzea ahalbidetzea espero da.

Aginte-koadroei buruzko azterlan hori Goi Ikuskaritzak Gizarte Zerbitzuen Behatokitara bidaliko du "*gure iritziz, azkenik zehaztu behar diren adierazleak garatzea Behatokiaren eskumena delako*". Gainera adierazle horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Informazio Sistemarako ekarpenak izango dira". Jardun hori bat dator Goi Ikuskaritzak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema orokorrean hobetzeko eta garatzeko bultzada edota osagarri izateko duen zereginarekin eta kasu honetan, zehazki, Sistemaren informazioaren mailari eta emaitzak jasotzeko mailari dagokienez.

Azkenik, adierazi du GZEK-ko kideei bi azterlanak bidaliko zaizkiela, nahiz eta *Adierazlearen aginte-koadroei* buruzkoan zenbait eranskin kenduko diren errespetuagatik eta soilik parte hartu duten erakundeei bidaliko zaizkien; kenduko diren eranskinetan erakundearen funtzionamenduari buruzko barneko alderdiak biltzen dira aztertutako hainbat prozesutan, esaterako, mendetasuna, mendetasun-sistemarako sarbidea, babesgabetasuna, familia-bitartekaritza eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako sarbidea.

- **Gotzon Villañok**, hitza hartzeko ireki den txanda aprobetxatuz, Goi Ikuskaritzako zuzendaria zoriondu du egiten diren gomendioak, azterketa eta ikerketak oso egokiak direlako.

Bere laguntza eskaini du, Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak diren aldetik, batez ere gomendioen gairako, zenbait arauketa (gizarte-fitxa, arreta pertsonalizatuaren plana, mendetasun-egoera onartzeko prozedura eta abar) lantzea eskatzen baitu arlo horrek. Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema homogeneizatzeko premiaren ideia azpimarratu du, sistema horretarako sarbidea lurralde historiko bakoitzean gaur egun dauden desberdintasunek baldintzatu ez dezaten.

- **Alfonso Gurpeguik** gogorarazi du adierazleen azterlana Gizarte Zerbitzuen Behatokian bilduko dela, "IKUSPEGIAK" Gizarte Gaietako Behatokian. Behatoki horrek 4 behatoki biltzen ditu: immigrazioarena, familiarena, haurrena eta orain garatzen hasiko den gizarte-zerbitzuena.

6. puntua.- EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko Txostenaren aurkezpena (II. Txostena, 2011).

- **Alfonso Gurpeguik** urteko txosten hori gizarte-zerbitzuei buruzko legeak GZEKri dagokionez ezartzen duen funtzioan kokatzen du (48.3d artikulua): "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hobetzeko gomendioak egitea, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren esparruan jasotako datuak oinarritzat hartuta egingo den urteroko txosten baten kariaz".

EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko 2011ko II. Txostena 3 zatitan banatuta dago (4 artxibotan banakatuta dago baina horietako 3 soilik bidali dira; ahalik eta lasterren bidaliko den I. eranskineko I. zatia bidaltzea falta da):

- **Urteko txostena.**
- **I. eranskina:** *I. zatia:* adinekoak, desgaitasuna, familia, haurrak, gazteak eta emakumea.
II. zatia: Gizarte-bazterkeria.
- **II. eranskina:** Gizarte Zerbitzuetako Teknikarien Panelaren emaitzak.

lazitik txosten horretan dokumentazioaren eta iturri estatistikoetatik, batez ere EUSTATetik, ateratako datuen azterketaz gain Teknikarien Panel bateko datuak eranstean dira.

Horiekin guztiekin GZEK-ko kide guztiei helarazi zaien txostena lantzen da, ondorioen eta gomendioen idatz-zati bat biltzen duena. "Txosten hori bere egin behar du GZEK-k. Guk kontseiluak egiten dituen zenbait ondorio eta gomendiori buruzko ohar labur batzuk gaineratu ditugu baina uste dugu horiek hurrengo osoko bilkuran edo kontseiluan onartu beharko direla".

Hori dela-eta, bertaratutako bokalei eskatu die Ondorioen eta Gomendioen Kapituluari jasotako proposamenak dagokion aldian aztertzeko eta ondoren, horiei buruz egokituz jotzen dituzten iradokizunak eta oharrak Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzari helarazteko, organo horrek onartu ditzan eta horrela Ondorioen eta Gomendioen dokumentua itxi dezan; horren onarpena hurrengo osoko bilkuran egingo litzateke (ekaina inguruan, udara aurretik).

- Eusko Federpeneko **Txema Odriozolak** duela 5 urtetik txosten hori buruz egiten ari den oharrak errepikatu ditu: adinekoen idatz-zatien bildutako datuak berrikusi dituenean ikusi du soilik egoitza-datuak gaineratu direla eta horrela adierazi zion aurreko gobernuari (gainera, presio horren ondorioz, Euskadiko adinekoen egoerari buruzko azterlan bat egitea lortu da). Hortaz, eskertuko luke formatua aldatzea eta bizi-baldintzei buruzko inkestarekin jarraitzea zehazten den maiztasunarekin; izan ere, egoitzaren gaiak Euskadiko adinekoen bizitzan % 5eko eragina besterik ez du.

- **Alfonso Gurpeguik** oharra jaso duela adierazi du, honako zehaztapen hau eginez: bizi-baldintzei buruzko inkesta gauza bat dela eta egokia dela nahiko maiz egitea eta horri eustea **Txema Odriozolak** aditzera eman duen moduan, baina gizarte-zerbitzuei buruzko txostena beste gauza bat dela, sistemaren zerbitzuei, prestazioei, gastuari eta finantzaketari buruzkoa delako. Hau da, gizarte-zerbitzuetan oinarritzen da eta horiei dagokiena jasotzen du. Kontua da datuak EUSTATEko sistema estatistiko batetik datozela eta hori aldatzea zaila dela.

7. puntua.- Gizarte Zerbitzuen sektoreko gizarte- eta lan-baldintzei buruzko azterlanaren aurrerapena.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa aipatu du (Plan horren 2011ko egikaritzapena GZEKren hurrengo osoko bilkurara eramango dute, horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko). Plan horretan bi jardun biltzen ziren:

- Lehena, gizarte-zerbitzuen sektoreko gizarte- eta lan-baldintzei buruzko azterlanaren inguruan;
- Bigarrena, lan-baldintzak aztertzeo Batzorde bat sortzean oinarritua.

Azterlana osatzen duten hiru kapituluetakoko baten ondorioak aurkezten dira hemen. Gizarte-zerbitzuen sektorean lan egiten duten pertsonen dagokie: bolumena, eboluzioa eta lan-baldintzak.

Gainerako bi kapituluak oraindik lantze-fasean daude. Hurrenez hurren, honako hauek dira: sektoreko negoziazio kolektiboari eta hitzarmenei dagokiena eta gizarte-zerbitzuen enplegua sortzeko ahalmenari dagokiona. Amaitu bezain pronto kapitulu horiek bidaltzeko konpromisoa hartu du.

Bere ikuspegitik, azterlan hori interesgarria izan daiteke GZEKren barruan Batzorde bat eratzeko eta bereziki gizarte-eragileei (sindikatuak eta patronala, baina gizarte-erakundeen eta hirugarren sektoreko patronalen parte-hartzea murriztu gabe) gonbidatzen die Batzorde horretan parte-hartzera eta ekimen horren buru izatera, Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako erakundeekin batera.

Dokumentua interesgarritzat hartzen du gizarte-zerbitzuen sektorearen lan-baldintzen arloan aurrera egiteko; izan ere *"gure ustez, enplegu-sortzailea izan daiteke baina egia da oso lan-baldintza desberdinak daudela, kasu batzuetan kolokakoak, eta sektorean nolabaiteko dualizazioa dagoela. Elementu horiek aintzat hartzeko modukoak dira, ondoren bateraturik zer estrategia gara daitezkeen aztertzeo"*.

Gainera, Batzorde hori sortuz Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitakoa beteko litzateke (48.4 art.), baita 2011-2014 EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoa ere. (Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren esparruan batzorde sektoriala, enplegu kalitatea eta trebakuntzaren hobekuntza eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntza sustatzera bideratuta dagoena, sortzea). Hori guztia sistema honek enplegua sor dezakeela ulertuta eta deslokalizatzen zaila den sistema dela balioetsiz.

Ondorio gisa esan daiteke Osoko Bilkurak aipatutako Batzordea sortzea onartu beharko lukeela eta haren eginkizunak, osaera eta abar orain dagoen arauketaren arabera ezarri beharko direla (Gizarte Zerbitzuei buruzko legearen 48.4 artikulua bigarrena eta azkena den idatz-zatian honako hau adierazten da: "Kontseilu sektorialen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-araubidea kontseiluok sortzeko xedapenetan ezarriko dira; xedapen horiek gizonezkoen eta emakumezkoen ordezkaritza orekatua izan dadin zaindu beharko dute").

Nolanahi ere, **Gizarte Gaietako sailburuordeak** Batzorde horri buruz ekarpenak egiteko aukera eman du eta egin nahi diren ekarpenak eta proposamenak onartuko dituela adierazi du.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak –aurkeztutako gizarte- eta lan-baldintzei buruzko azterlana oinarritzat hartuta– bere gain hartu du Batzordearen (Kontseilu Sektoriala) helburua, eginkizunak, osaera eta abar biltzen dituen proposamen bat lantzea ondoren, erakundeei, sindikatu eta patronalari eta hirugarren sektoreari bidaliko zaiena.

8. puntua.- Galde-eskeak.

- **Alfonso Gurpeguik** egoera baliatuz Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren lehendakaria agurtu du berariaz; bera GZEKren bileretara etortzea eta parte hartzea organo honen azken osoko bilkuran onartu zen. Gonbidatuari eman dio hitza.

- **Iban Arrienek GZEKri eskertu dio** Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialari organo horretan parte hartzea ahalbidetzeko izan duen adeitasuna. Kontseiluan parte hartzeko eta ahal duen neurrian gizarte-zerbitzuen garapenean –eremu soziosanitariotik eta fisioterapiaren eremutik– bere “ekarpentxo” egiteko borondatea azaldu du, betiere pertsona eta kolektibo guztien (bereziki mendetasunarekin eta desgaitasun fisikoarekin zerikusia dutenak) onurarako.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak eskainitako laguntzeko borondatea eskertuz eta gai soziosanitarioari helduz, Gizarte Gaietako sailburuordeak gogorarazi du hurrengo asteartea 21ean egingo dela Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren 1. bilera, dekretu berriari jarraiki.

Era berean, gogorarazi du iaz eremu soziosanitarioko jardunen ildo estrategikoei buruzko dokumentu bat onartu zela eta dokumentu horrek bi jardun-maila dituela, autonomikoa eta lurraldekoa. Azken horretan biltzen dira hiru lurraldeetan garatzen ari diren lurraldeko plan operatiboak, aurretik Arabako Foru Aldundiko Paloma Arancetak ere aipatu dituenak.

Maila autonomikoari dagokionez, interesa duten bertaratutako guztiei astearteko bileran onartzen den Plan Autonomikoa helarazteko konpromisoa hartu du.

Azken eskaintza horrekiko GZEK-ko zenbait kidek aldeko jarrera agertu ondoren, ez da galde-eske gehiagorik egin, eta, beraz, 2012ko otsailaren 17ko 11:30ean amaitutzat eman da bilkura.

IDAZKARIA

OE
Jarduneko LEHENDAKARIA

1. ERANSKINA

GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO LEGEA GARATZEA ETA APLIKATZEA EUSKO JAURLARITZAREN ESKUMENEI DAGOKIENEZ 2012ko otsailaren 17a

Dokumentu honetan Gizarte Zerbitzuen legearen eta gizarte-zerbitzuetan eragina duten bestelako legeen garapen eta aplikazioan azken hilabeteetan eman diren pausoak berrikusi dira.

1. Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa

Martxoaren 30eko 101/2010 dekretuak arautua.
GZEKren azken osoko bilkuratik bilera bat egin da.

2. Gizarte Zerbitzuen mapa eta plan estrategikoa

2012ko otsailaren 15eko Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren azken bileran Maparen eta Memoria Betearazlearen eta Ekonomikoaren behin betiko idazketarako zenbait irizpide adostu ziren. Organoan eta 2011ko ekaineko GZEKren bileran onartutako Planaren neurrien jarraipena egiten da.

3. Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa

Otsailaren 15ean hasierako dokumentu bat adostu zen, gaur ematen da eta hemendik aurrera dokumentu horren izapidetze-prozesua hasten da, alegazioetarako epe batekin. Ondoren, bere onarpenerako beharrezkoak diren txosten guztiak landuko dira.

4. Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa

Laster dekretuari hasiera emateko agindua emango da. Testua 2011ko irailean aurkeztu zen erakundeetan.

5. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazio Sistema

Martxoan sistema hori eskuragarri egotea aurreikusi da eta 2012rako geratuko da interoperatibitatearen irtenbidea. Era berean, urtean zehar gaineratzen joango da babesgabetasunari eta desgaitasunari buruzko informazioa. Jadanik eskura dago mendetasunaren, gizarte-larrialdietarako laguntzaren, diru-sarrerak bermatzeko errentaren, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren eta telelaguntzaren inguruko informazioa.

6. Gizarte Zerbitzuen Behatokia

Dekretu arautzailea 2011ko urriaren 26an onartu zen.

7. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Itun Araubidea

Hirugarren sektoreko ordezkarien ekarpenekin dekretuaren 4. zirriborroa lantzen ari dira elkarriketa zibileko mahaian horretarako sortutako Batzordean.

8. Balioespenerako tresna tekniko komunak

2011ko abenduaren 12an Balora Dekretua argitaratu zen EHAAan eta gure WEBgunean eskuragarri dago.

Bazterkeria-egoeren balioespenerako tresna teknikoa lantzeko, tresnaren hedapenerako 33 saiotik gora egin dira ekainetik azarora bitarte, eta gizarte-zerbitzuen sistemako 600 profesional baino gehiagok parte hartu dute. Gizarte Zerbitzuetako teknikariak erreminta

hori aztertzeko balioko duen aplikazio informatikoaren lantze-prozesua bukatzen ari dira, ondoren onartzeko.

9. Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialaren eremuan ematen dituen diru-laguntzen inguruko jarduera berrantolatzea

2011ko azaroan egin zen deialdi aurreratua. Aurkeztutako proiektu kopurua aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa da. Une honetan teknikarien balioespen-prozesuan dago. Ebazpena martxorako izatea espero dugu.

10. Koordinazio soziosanitarioa

Aurreko Hitzarmen Soziosanitarioaren amaiera iragarri ondoren, lehen eraketa-bilera deitu zen baina elurrarengatik bertan behera geratu zen. Hurrengo bilera otsailaren 21erako aurreikusi zen eta bertan 2012rako lan-planari ekingo zaio.

11. Familia Bitartekotzako Zerbitzu Publikoa

Urtarrilean, zerbitzua esleitu ondoren, Arabako Familia Bitartekotzako Zerbitzua ireki da Gasteizen.

Bitartekariak erregistratzeko Dekretua, Erregistroa eta Prestakuntza arautuko duena, Aholkularitza Juridikoaren Txostenaren zain dago, ondoren Kontrol Ekonomikoko Bulegora eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora bidaltzeko. Sarbide Dekretua ere egoera berdinean dago.

12. Gizarte-zerbitzuen erregistroa

Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak txostena eman du eta berehala bidaliko da Kontrol Ekonomikoko Bulegora eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora.

13. 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen

Arabako Adingabeen Kontseiluan onartu dira aipatutako protokoloak. Aurreko Kontseiluan esan zen moduan, eremua eta onartzeko modua Aldundi bakoitzaren irizpidearen arabera izan da.

14. Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzailearen homologazio-dekretua eta prozedurak

Abenduaren 27ko 277/2011 Dekretua urtarrilaren 24ko EHAAAn argitaratu zen.

15. Gizarte-gastua

Sailburuak proposatuta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren azken bileran Zorroari buruzko Dekretua indarrean jartzeak sortuko duen kostu ekonomikoaren inguruko memoria ekonomikoa lantzeko Lan Talde bat sortzea erabaki zen; Lan Talde horren helburua erakundearen arteko fluxu ekonomikoak banatzeko behar diren akordio ekonomikoak hartzea izango da, onartzen diren eskubide subjektiboen finantza-askitasuna berma dadin.

16. 2012rako aurreikusitako araudi-garapena

2012. urtean zehar desgaituei zuzendutako baliabideak arautzen dituzten testuak onartzeko izapideak hastea aurreikusita dago.